



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2026ko URTARRILA - 269. zenbakia

Sei finalistak prest Xilabako finalerako

Urtarrilaren 31n jokatu da Xilaba Bertsolari Txapelketako finala, 17:00etatik aurrera, Jai Alain; sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian daude eskuragai.

Donibane Lohizuneko Jai Alain izango da Xilabako Bertsolari Txapelketaren finala, urtarrilaren 31n, 17:00etatik aurrera. Aitor Servier, Elixabet Etxandi, Irantzu Idoate, Maddalen Arzallus, Maddi Ane Txoperena eta Miren Artetxe ariko dira kantuan. Seikote honek argazki berri bat ekartzen du, nola belaunaldiartekotasunean, hala generoari dagokionean. Hain zuzen, hiru bertsolarik lehen aldiz abestuko dute finalean, eta seikotean bost izango dira emakumeak.

Sei buru horietako bati jantziko dio txapela Maialen Hiribarrenek. Bertsularien Lagunak Elkarteak urte luzeetan Hiribarrenek elkartearen egindako boluntario lana aitortu nahi izan du: elkarte bera osatzen eta indartzen izugarritzko lana egin du gaur egungo ardatzei hauspoa ematen, batez ere, transmisioari.

Protagonista horiez gain, Amaia Castorene eta Aritz Bidegain ariko dira gai-jartzailer lanetan. Epaileak, berriz, hurrengoak izango dira: Abel Zabala, Ainhoa Sarasua, Eneko Bidegain, Iban Thicoipe, Jon Garmendia Txuriya, Maialen Berra eta Zuhaitz Olazabal.

Hainbat ohar finalerako

Finaleko sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian daude eskuragai eta, sarrerarik geratuko balitz, egunean bertan 15:30ean irekiko da txarteldegia.

Finalaren egunean 16:00etan zabalduko dira Jai Alaiko ateak. Bertsularien Lagunak Elkarteak denboraz joateko eskatzen die bertsozaleei, jende asko bilduko delako eta sarrera errazteko. Aparkaleku eremua izanagatik, Jai Alaira heltzeko garraio publikoan joateko gomendioa luzatu da, trenez edo autobusez Donibane Lohizunera trenez etorrita edo Txik txak autobus sarea erabilita.

Finalera bertaratu ezin dutenek zuzenean jarraitzeko aukera izango dute bertara etorriko diren hainbat hedabideen emisioen bidez; tartean, www.eitb.eus atarian eta ETB4n zuzenean eskainiko da finala 16:45etik aurrera, Ilaski Serranorekin eta Aimar Karrikarekin batera. ETB1ek buruz-burukoa eskainiko du. Biharamunean Hitzetik Hortzera berezia eskainiko da ETB1en finalaren laburpen eta txapelaldunaren elkarriketarekin.



Xilaba Bertsolari Txapelketako finalistak, aurkezpenean. // XDZ



**AITOR
ETXEBARRIAZARRAGA
GABIOLA**

BILBO. 2025-12-20

**BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO TXAPELDUNA**

Doinua: Egunsenti batean

Lehenengo eskertzak
gaur Lilitegira
ta jausi nazenean
deustenei tira
baina emon daiegun
iraultzei segida
behingoz sortzeko mundu
bat danon neurrira
hori ezta lortuko
egonda begira
ta soilik ametsak ez
heltzeko utopira
ekiteko unea
hau dala argi da
biharrak marrazteko
gaurrak behar dira. (bis)

Otsailaren 7an hasiko da Arabako Bertsolari Txapelketa

Lehen fasean hiru saio, bi finalurreko eta finala jokatu dira; finala martxoaren 28an izango da Europa Biltzar Jauregian. Saio guztietarako sarrerak daude salgai www.bertsosarrerak.eus atarian.

Urte hasierarekin batera aurkeztu da 2026ko Arabako Bertsolari Txapelketa. 18 bertsolarik parte hartuko dute: 2024ko Arabako Bertsolari Txapelketako finalean kantatu eta izena eman duten lauk eta 2025eko udazkeneko sailkapen fasetik sailkatutako beste 14 bertsolarik.

Hiru fase izango ditu txapelketak: lehen fasea, finalurrekoak eta finala. Otsailaren 7an, 15ean eta 21ean jokatu dira lehen faseko saioak, Oionen, Laudion eta Izarran, hurrenez hurren; finalurrekoak martxoaren 7an eta 14an izango dira, Dulantzin eta Aramaion; eta azkenik, martxoaren 28an izango da finala, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian.

Bertsolariez gain, txapelketako taldeak ere lanean ari dira. Guztira bederatzi epaile eta 11 gai-jartzaile ariko dira.

Sarrera guztiak, eskuragai

Saio guztietarako sarrerak eskuragarri daude dagoeneko www.bertsosarrerak.eus atarian.

Bestalde, ohiko bideetatik egin ahal izango zaio jarraipena txapelketari: www.bertsozale.eus ataritik, Arabako Bertsozale Elkarteen sare sozialen bidez zein www.bertsoa.eus ataritik.



Hainbat parte-hartzaile Arabako Bertsolari Txapelketaren aurkezpenean. //XDZ

Berrituta dator www.bertsosarrerak.eus ataria

Erosketa prozesua erraztea eta sarrerak uneoro eskura izatea dira abantailak batzuk. Bertsozale Elkarteko bazkideek euren txokoa izango dute horretarako.

Bertsozaleek ondo dakite zein den bertso saioetarako sarrerak erosteko bidea: www.bertsosarrerak.eus ataria. Urteak daramatza martxan eta erabilera eman zaio, udazken honetan kasu. Hobekuntzak egiteko ordua heldu da eta urte berriarekin ataria berrituko dugu; urtarilaren bukaeratik, berritua ikusiko da.

Bertsozale Elkarteko bazkideen kasuan, bazkide bakoitzak norbere txokoa izango du aurrerantzean: sarrerak deskontuekin

erosteko aukera, eskura izatekoa... egongo da bertan. Horretarako, bazkide guztiek erabiltzailea sortzeko mezua jaso dute beraien helbide elektronikoan, pasahitza ezarri dezaten. Oraindik egin ez dutenek aukera izango dute bidalitako loturan klikatu, helbide elektronikoa sartu eta "berrezarri" botoiari emanda.

Sartu eta ikusi www.bertsosarrerak.eus atari berria!

Hasi da Gipuzkoako Herriartekoa

57 taldek parte-hartuko dute eta 100 saiotik gora jokatuko dira, inoiz baino parte hartze handiagoa izango da aurten; finala maiatzaren 30ean izango da Aian.

Hirugarren aldiz jokatu da aurten Gipuzkoan Herriartekoa, taldekako txapelketa; 1999an izan zen lehenengoa, 2017an bigarrena eta, aurten, hirugarrena. Inoizko parte hartze handiena izango da gainera aurten jokatu den honetan: 57 taldek eman dute izena (aurreko Herriartekoetan 24k eta 38k eman zuten izena, hurrenez hurren), eta talde horietan 350 pertsona arituko dira.

Talde bakoitzak bost partaide izango ditu, gutxienez. Hasteko, hiru bertsolari; saioetan hiru edo lau bertsolarik abestuko dute, baina taldean kide gehiago ere izan daitezke. Bestetik, gaitzaitzaile eta epaile bana ere izan beharko dute taldeek. Eta, azkenik, ordezkari bat ere badute bilketa, komunikazio edo antolaketa lanak egiteko.

Lau fasetan banatuko da txapelketa: lehen fasea, bigarren fasea, finalaurrekoak eta finala.

Lehen fasea berezia izango da egitura aldetik. Gipuzkoako zortzi azpieskualde banatu dira: Buruntzaldea, Debabarrena, Debagoiena, Goierri, Donostia-Oarso-Bidasoa, Tolosaldea, Urola eta Urola-Kosta. Fase honetan eskualde bakoitza izango da fasearen sortzailea eta arduraduna. Eta fase horretatik, zortzi sailkatuko dira bigarren fasera, eskualde bakoitzetik bana.

Bigarren fasean lau saio jokatu dira, zortzi talde horien artean. Eta lau sailkatuko dira finalaurrekoetara. Bi izango dira finalaurrekoak, areto handiagoetan jokatu direnak. Eta horietan erabakiko da zeintzuk izango diren maiatzaren 30ean Aian kantatuko duten bi talde finalistak. Finala bertso bazkari erraldoia izango da, bertsolaritzaren festa eta elkargunea.

Azken faseetako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian egongo dira eskuragai martxotik aurrera.



Herriartekoaren aurkezpena Amasa-Villabonan. //XDZ

Otsailaren 3an abiatuko da 2026ko Bertsoaroa Iruñean

Zazpi emanaldi izango dira martxoaren 12a bitarte Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Iruñeko Udalak antolatuta.

Abiatzear da Bertsoaroaren 35. edizioa. Otsailaren 3an hasiko da zikloa eta martxoaren 12ra arte luzatuko da. Tartean, zazpi emanaldi izango dira guztira, Iruñeko hainbat tokitan.

Izan ohi den moduan, Bertsoaroak unean uneko bertsolaritzaren berri, kalitatez eta aniztasunez ematea du helburu. Otsailaren 3an Bertso Tramarekin emango diogu hasiera zikloari, Kondestable Civivoxean. Otsailaren 5ean jarraituko du Nafarroako Antzerki Eskolan, bertso jaialdiarekin. Itzali eta piztu bertso saio elektronikoa izango da hurrena, otsailaren 12an, LABAn. Hilaren 19an izango da bigarren bertso jaialdia, Txantreako Salestarren Zentro Komunitarioan. Hezur berriak bertso saio literarioak emango dio jarraipena zikloari, otsailaren 26an, Katakrahen. Haurrentzako ere egongo da emanaldia: otsailak 27an, Iturramako Civivoxean, Bertso Jasa, bat-bateko Jolasa bertso-saioa eskainiko da. Eta aurten ere, laugarrenez, bertso afariarekin emango zaio bukaera Bertsoaroari: martxoaren 12an, Herriko tabernan.

Kondestable Civivoxean, Katakrahen, Antzerki Eskolan zein Salestarren Zentro Komunitarioan egingo diren lau emanaldiak sarrera libre izango dute, lekuak bete arte. Bertso jasa tailerrarako izena eman beharko da aurrez, eta Herriko Tabernan

ospatuko den bertso afariarako www.bertsozale.eus webgunean erosi beharko dira sarrerak (otsailaren 28tik aurrera), 25 euroan.

Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.



Pello Fagoaga Pikulari diseinatzaile erratzuarrak diseinatu du aurtengo irudia.



Puntua jarrita

JULENE ITURBE EPELDE

Oro har, sorpresak esango nizuke. Bertso eskolarik ez den astearte iluntze batean hartu dinat hire galderari erantzuteko tartea. Zoria izango hunan. Baina, gaur ere, berandutuko zaidan jakin gabe abiatu naun bertsoaren ala bertsolaritzaren (ez baitituen berdin-berdinak sarri) bueltako hausnarrera.

Niri ere, lehenengoz bertsoak berak mugitu zizkidanan barrenak. Nerabe haren begitan bertso eskolan, klasekideengan zein miresten nituen bertsolarien inguruan zabaltzen zen aukera, mundu eta jolaserako leku posibleen marko infinituak. Gerora, bertsolaritzak lortu izan din hori. Lagunek eta kideek, haienganako miresmenak, hitz neurtuez haragoko helburu kolektiboetan sinesteak, lorpen txiki-handi batzuek ere bai noizbehinka.

Tripako minak eta buruhausteren batzuk ere ekarri izan zizkigun bertsoak. Baita bertsolaritzak ere. Ez guri bakarrik. Baina bazeukanagu oraindik horretan jarraitzeko gogo. Eta gogo edo motibazio hori zerk eragiten didan galdetu didan.

Askotan egin zionat galdera bera neure buruari. Eta nahiko garbi zeukanat erantzuna. Ez genitizkenan bilerak hala luzatuko elkarri helburu berdin edo antzekoengatik borondaterik sumatu ez bagenio. Ez nengokenan hemen bidean egindako eta eutsi nauten kide eta lagunengatik ez balitz. Eta nekez iraungo niken bertsoan nola bertsogintzan bertso saioetara (metaforikoki bada ere) polo urdinez joaten diren bertsozaleengatik eta Ahalduntze Bertso Eskola Feministarengatik ez balitz. Zauri eta helburu konpartituak erakutsi zizkigun bertsolaritzak. Goxo egoteko leku bat aurkitu eta eraiki dinagu. Eta elkarri eusten ikasi. Horrek ematen zidan jarraitzeko indarra.

Joane, ez nuke esango inoiz guztiz urrundu zarenik (edo urruntzea lortu duzunik) bertsolaritzatik. Hala ere, berriro oholtzaratzera animatu zinen azken Señora Sariketan. Zerk bultzatu zintuen "itzultzera"?

Koplak

Bertsolaritza irakasle baten bila ari da Nafarroako Bertsozale Elkartea

Iruñerriko, Lizarraldeko eta Piriniotako eskoletan ariko den bertsolaritza irakaslea behar du Nafarroako Bertsozale Elkartek. Lanaldi osoa eskaintzen da, otsailetik ekainera bitarte, ordutegi moldagarrian. Urtarrilaren 30era bitarte (hau barne) eman daiteke izena. Interesdunek nafarroa@bertsozale.eus helbidera helarazi beharko dituzte curriculum eta motibazio gutuna. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian eskura daiteke.

Poto-Finixa



Iepa, Joxepa!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Otsailaren 6tik 8ra egingo da Bizkaiko Neguko Bertso Barnetegia

Ez gehiagok eta ez gutxiagok: 100 gaztek eman dute izena aurtengo Bizkaiko Bertso Barnetegian. Gauteigiz-Arteagako Baratzte Baserri Eskolan batuko dira otsailaren 6tik 8ra bitartean DBH1etik Batxilergoko bigarren mailara arteko gazteak. Egonaldiaren helburu nagusiak, bertsoagaz gozatzeaz gain, Bizkaiko bertso eskoletan dabilzan gazteek elkar ezagutzea eta beraien arteko harreman sarea sendotzea dira.

